

*nario castellano-vasco* egiten, Eusko-lkaskuntzari agindu zitzaionez. Beste ainbeste egin bear litzake *gramática dialectal*-ez bañan oraingoz benepein *Diccionario* orixe asi. Euskaltzaindiak Ormaetxea jauna izendatu du iztegi beñi oni dagozkion lanetarako ta 3.000 pesetako urteroko sariya emango zayo. Dei egin bear zaye itz beñi idorozaleai ta baldin nork edo nork egiazko 50 beñi balekarzki, saritzat iztegi-ale bat emango zayo ta bere izena goragaritzat *Diccionario* oren itzaurean aipatu.

IV.—Azkue jaunak irakuñi dizkigu *Subdialecto de Aezkoa* iragaritzat duen lana, ta *Balada de San Martín* Aezkoan bertan berak bildua.

Ta geyagoko gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da batzafaldi au.

---

### Zumaya'ko Udaletxean, 1926'ko Urila'ren 29'an.

Zumaya'ko Udaletxean, Euskaltzaindiak jai ospetsu bat izan du. Bertako Udalak Euskalzaindiari atariyan agur egin diyo ta onek ere, berez erantzun. Aguren ondoren, Udaletxeko gela-nagusian, Azkue maipuru jafi da, aldamenez izanik bertako Alkate jauna, Elizako apaiz-laguntzaile edo koajutore bat, apaizburua eritik urun dalako ta Eusko-lkaskuntzako zuzendari Julian Elortza jauna.

Bonifazio Etxegarai euskaltzain autuaren sañera da ta berau zumayañ izanik, eri guziyak onetsi nai luke ta egiaz eritar geyenak jai ontan olde-oldez daude. Gizozte andiyak bete beterik dauka gela.

Or daude Azkue ezik, euskaltzain jaun abek: Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intza, Intzagarai, Lakonbe ta Etxegarai autua, urgazletatik Belaustegi-goitia ta Zinkunegi.

Otoitez asi da batzaraldi ageri auxe.

I.—Eriko eresbatzak, berebiziko ederki, euskal-eresi bat abestu du.

II.—Bonifazio Etxegarai jaunak egin du bere sare-rako itzaldi eder ta ondo moldatua. *Basetxe izenak* auxe da itzaldiyaren gaya ta eruz ekafi dizkigu, zati zatiz ilbanduak ta zeazbide askoz adieraziyak. Itzaldiya bukatu duenian txalo asko egin zaizkiyo, batez ere, Euskaltzainburuak ezautailua lepotik bera ipiñi diyonean.

III.—Eresbatzak beste euskal-eresi bat abestu du.

IV.—Intzagarai euskaltzain jaunak itzaldi eder batez erantzun diyo Etxegarai jaunari.

V.—Beste abesti bat.

VI.—Euskaltzainburuak itzaldi motx bañan mami-tsz amaibidea eman diyo batzaraldi oni ta ondoren gelan gaudenok, zutik jafi-ta, *Gernikako* abestu degu.

Eri guziyak danboliñaz euskalzañai lagun egin digute geon ostaturarte. Eskeñak Zumaya'ko eri euskaldunari, batez ere bere Udalari.

---

### Zumaya'n, Udal-etxean, 1926'ko Urilaren 29'an.

Ona zein euskaltzain datozen: Azkue maipuru; Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Intza, Lakonbe eta Etxegarai. Urgazlerik batez. Otoitez asi da batzaraldia.

I.—Eguskitza jaunak Iztegi berirako itz-sala dakar; baita Azkue jaunak ere.

II.—Azkue jaunak oarpide batzuek jartzen dizkiyo Bonaparte'ren liburuari: *Langue basque et langues finnoisses*. Auxe irakurita Azkue berak diyo: Euskaleñiko uri-buruetako Udalai eskabide bat egin bear

lizayekela, eskaturik Bonaparte Luzianotzat kale izen bat gordetzeko. Onetzaz auxe erabaki da: lenengo Iruñia'ko Udalari eskatu bear zayo *Euskeraren adiskideak*-en bitartez. Gero Bilbo'koari; gerora egingo da Gazteiz eta Donosti'kikoa.

III.—Lakonbe jaunak Intxauspe ta Bonaparte-ren arteko eskutitzak irakuñi dizkigu.

IV.—Ormaetxea jaunak bere idazki batez galdera batzuek egiten dizkigu, berari eman zayon *Diccionario* lanaren arazo bidez. Gañera itzberñi idoro zaleak azaldu dirala diyo: ta sarigarñi noski Intxauroñdo, Larakoetxea, Urkia, Zubiaga, Bähr ta Ormaetxea bera.

V.—Eskutitz batzuek irakuñi dira: oyen artean bi txalogarñi; *Junta Nacionalista* Vasca de Rosario-k 100 pezeta igortzen dizkigu ta Bernardo Biana jaunak beste 100. Eskeñak.

Ta beste gairik izan ez-ta, otoitzez amaitu da batzañaldi au.

---

### **Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1926'ko Azaroaren 25'an.**

Batzañaldi ontan euskaltzain abek bildu giñan: Azkue, maipuru, Urkijo, Olabide, Lakonbe, Landeñetxe, Etxegarai, Eguskitza ta Intzagarai ta euskaltzain-ordeko Ormaetxea. Urgazlerik batez. Otoitzez asi da batzañaldia.

I.—Urtel il dala-ta, agertu bear zaiyo bere sendiari Euskaltzaindiaren samintasuna.

II.—Berdin noski Juan Karlos Gortazar'en sendiyari, euskaltzale bikain au geon artetik joan zaigulako.

III.—Ormaetxea jaunak Nabarro Tomas jaunari erantzun diyo idazki batez ta Ormaetxea berak irakuñi digu idazki orixe.